

**Bigarren mahai-ingurua:**  
*Euskarazko komunikabideak osasungintzan*

## **3.5. Osasun Etxearen esperientzia Euskadi Irratian**

**Arantxa Arza Lasa**  
*Irratsaioaren aurkezlea*  
*arza.arantxa@gmail.com*

*Osasun Etxea*, Euskadi Irratian igande goizero emititzen den saioa nola egiten dugun azalduko dizuet. Interneten osasun-kontsultak egitea puri-purian dagoen garai honetan, ordu-erdi eskaseko irradi-programa honek erakusten du jendeak, osasungintzari dagokionez, gizatasuna estimatzen duela: gizatasuna, hurbiltasuna, norbere kasua bakarra balitz bezala tratatzea, zorrotasunez, zehaztasunez... eta erraz ulertzeko moduan. Horretan saiatzen gara, bereziki, Felix Zubia medikua. Kontsulta partikular birtual baten modukoa da *Osasun Etxea*. Kontsulta horren barrunbeak erakusten saiatuko naiz, irratiko-audioen laguntzarekin.

*Osasun Etxea*, 2013an hasitako programa da, baina aurreragotik zetorren Euskadi Irratian osasunari buruzko kontsulta-programa egiteko erabakia. Julian Bereziartua Azpeitiko mediku-zirujau ezagunak, lehenagotik, urteak zeramatzan, igande goizetan, entzuleen galderei erantzuten eta bestelako osasun-gaiak lantzen. Hark saioa utzi egin behar izan zuen, gaixotasunagatik, eta orduan ekin genion *Osasun Etxea* saioari Felix Zubiarekin.

6 irradi-denboralditan, pentsatuko duzue, gai asko landu izan ditugu. Kasu asko eta askotan, entzuleen kontsultetatik abiatzen gara. Eurek egiten diguten galdera partikularretik hasi eta orokortzera jotzen dugu. Adibidez: infartua izan duen entzuleak bere zalantza konkretua agertzen dio Felix Zubiari, bere mezuan, agertuz, zer botika hartzen dituen eta bere medikuak jarri dion tratamendua zein den. *Osasun Etxean* orduan, Felixek haren kasuari buruzko azalpen konkretua ematen du, baina horrekin batera, bihotzari buruzko azalpen orokorrak ematen ditu. Hala, kardiologiako klase txiki bat bihurtzen da *Osasun Etxea*, eta entzule horren galderatik abiatuta denok ikasten dugu bihotzari buruz.

Bihotzeko gaitzak ez ezik, beste batzuk ere landu ditugu: bertigoa, prostata, artrosia, herpesa, alzheimerra, alkoholismoa, kutsadura akustikoa, depresioa.... Ikus dezakezue, era askotako gaiak lantzen ditugu *Osasun Etxean*. Beti gogoan dugularik, dibulgaziorako saioa dela, beraz, erraz ulertzeko moduan aritu behar dugula, informazioa ahalik eta zehatzen emanez, diskrezio osoz eta ahal dela baikortasunez.